

TXOOO000TX!!

Sagardotegira irteera Pil-pileanekin

Eguna: **Otsailak 23**
 Ordua: **12:30ean**
 Lekua: **Estazioko geltokian**
 Prezioa: **35€ / bazkideentzat 30€**
 (bazkaria + autobusa)

Txartelak erosteko:
Iratxo goxodenda eta Gila, Arrano
eta Gaztelupe tabernetan

Antolatzailea





Fresaketa teknologia




SORALUCE
GRUPO DANOBAT

SORALUCE S.Coop. • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
 Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: www.soraluce.com


- **Kirola:** Unai Soraluze, urrezko domina Paristik
- **Entzutekuak:** Revelphone, MozoRock lehiaketako talde irabazlea

soraluzeko
 hamabostekaria **171.** alea
 2008ko otsailaren 8an

@ pil-pilean



Aratusteak 2008
Mozorroak jantzita
giroa berotzen

**AITOR MORILLO****ENARA AGIRRE**

NOSSO FADO, NOSSA SIREIA

Bai? Ba al da inor hor?...Yogourfono honek be kobertura gabe...

Erronka berri baten aurrian nago. Oingutxi, kontzertu baten, abeslari lirainak zera esan zeban, bakoitzak bere fadua daukala, jaiotzez bakoitzari doinu bat dagokigula. Ordutik hortan nabil, nere faduan bila, nere bizitza islatzen daben melodian bila. Lan benetan zaila. Ez dozu uste jende askok aspaldi aurkittu dabela beria? Entzun dozu Homer on odiseako lamien kantua? Igual ez dago hori adittu dabenik baina ala dirudi, danok lelotu xamar bagiz eta. Edozein lekutara zoiazela beti dago norbait liskarretarako prest, lagunekin parrandan urtetzia osasunerako arrisku haundiko jardue- ra bilakatzekotan dago, alkohola eta bestelakuak alde batera lagata noski. Berdin autuan sartzen garanian. Nik uste kotxia martxan jarri bezain pronto askatutako gasek Jekyll doktorean antzeko erreakzi- ñuak eragitten dozkuezela, mehatxu eta iraindun esaldixak jaurtitziari ekiten dotsagu. Zer esanik ez futbol partiduetan (epailien ama koittauak) eta bestelako ekitaldi massifikatuetan. Azken batian, autuan barnetik edo armailetatik oihuka, babestuta, boteretsu, harro, Munduko errege sentitzen gara. (Datua historialarixentzat, Cantonaren ostikada jaso zeban ikuslana da historiako erregealdirik laburrena.)

Zuk aurkittu dozu zure fadua? Nik horretan jarraituko dot, ia ez doten lamiaren batekin topo egitten... ☺

**Jaiotzez
bakoitzak bere
fadua dauka**

Aitor Morillo

**Nere fadua nik
egingo dot eta
zuria zuk**

Enara Agirre

Ikusten dotenez zu be duda existentzialez beteta zabiz. Lasai, ez zara bakarra eta.

Fadua danok bakarra daukagula diño abes- tixak, emondakua eta aldaeziña; baina zuk uste ezin dogula ezer egin hori aldatzeko? Ni baiezku nago. Esatia dauke nahi dabena; nere fadua nik egingo dot eta zuria zuk zeuk, eta harena harek.

Mori, zu bezela nere faduan bila jar- dun dot oin arte, baina topatu ezinda, frustraziñuak hartu nau beti. Halan da be, gehixenetan txarretik onetik baino gehixago ikasten dogu eta nik nere fadua ez badot aurkittu be, gauza bat argi geratu jata: faduekin edo fadorik bare bizitza bakarra daukagu, bide luze eta eder bat guk geuk bakarrik ibili geinkena eta nahi dogun tokira doiana. Baten ba- tek bere fadua aurkittu badau (be- netan zaila dana, posible bada be- hintzat) bejondeixola. Baina hilkor gehixenori hori baino gutxiagokin konformatzia beste erremediorik ez jaku geratzen.

Seguro nago gure fado hori aurkittuz gero, errepideko kamikaziak motelduko lirakeze- la eta partiduetan jendia benetan goatzera juango zala, ez dozu ala uste?

Baina zegaittik ez dozu nahi lamiaren ba- tekin topo egitterikan? Zegaittik egin bi- har dotsagu uko halako tentaziño goxuari? Daukaguna aprobetxatu bihar dogu eta, fa- dotaz ahaztuta, momentua aprobetxatu.

Ia ba laister lamiaren bat topatzen dozun, kantatzen badotsu primeran, eta bestela go- zatu berakin ahal dozun guztixa.

☺

Goguan hartzeko

**Zer probetxu du bide luzeari lotzeak,
nahi dugun lekura heltzen ezpada?**

Esaera zaharra



GUTUNAK

Pil-Pilean herri aldizkarian Alkateari eginiko elkarrizketaren irakurketak hainbat adierazpen egitera bultzatzen gaitu: Lehenik argi esan aurreko alkateak, Alkatetzako dokumentuen kokapenaren berri eman eta bere laguntza eskeini zuela hango gaien berri emateko. Zalantzarik izanez gero, galdetu besterik ez zuen. Gehiago esango genuke, gu izan gara herriko gai desberdinak batzordeetan jorratu direnean azalpenak eman ditugunak. Ondorioz, ez dugu ulertzen zer-gatik leporatzen digun gizatasun eza.

Liberazioaren inguruan berriz ere esango dugu ez gaudela ados alkatea ez den hirugarren-go pertsona baten egun osoko liberazioarekin. Ordea, alkatearen % 100eko liberazioaren alde gaude (soldata irabaziz). Lanerako gogoz badaude ez dezatela gai hau aitzakitzat erabili proiektu desberdinen exekuzioa aurrera eramateko, egin dezatela lan.

PER eta aparkalekuen gaien inguruan. PERari dagokionez herritarrei ondorengo azaldu nahi diogu: gaur egunean indarrean dauden Arau Subsidiarioak 1999an onartu ziren. Udala osatzen zuten alderdi politiko guztiek onartu zituztelarik, baita Ezker Abertzaleak eta baita EAk ere. PERaren helburua R8 gunea (alde zaharra) garatzea da, oinarritzat Arau Subsidiarioak edukita, ez da besterik. Jakinekoea da alderdi hauek honen inguruan egin duten kanpaina. Ez dugu ulertzen lehen gauza baten alde egon eta hauteskunde bezperan zeharo kontrakoa. Azaldu dezatela. Urtarrilaren 10ean eduki genuen Udal Osoko bilkuran EAJtik proposamen bat egin genion Udal Gobernuari, 2008ko Udal Aurrekontuetan kontutan har zezala Arau Subsidiario-

Adierazpen Askatasuna. Epaiketarik ez!

Ze gertatu da zazpi soraluzetar epaitegira eramateko?

Pasa den maiatzaren 5ean, hauteskunde bezperan, Patxi Lopez PSEko burua eta alderdi bereko hainbat kargu gure herriko kaleetan ibili ziren. Berak erantzukizunak dituen hainbat gairen gaineko ezadostasuna aldarrikatzea otu zitzaigun hainbat herritarri. Izarak hartu (Euskal Presoak Euskal Herrira eta AHT gelditu ziotenak) eta beraien atzetik abiatu ginen, baketsu, inongo oihurik bota gabe.

en berrikuspenea; ikusiko da. Bestalde, komunikabideetan azaldu da nola Erregetxe eta Plaza zaharra ez diren PERaren barnean sartzen; Arau Subsidiarioetan R5 gunean barneratzen baitira, besterik gabe. Erregetxeko aparkalekuei dagokionez, Ezker Abertzalea bere kanpainan aparkaleku publikoak egitearen alde azaldu zen. Alkatearen elkarrizketa irakurri ondoren, autofinantziaziñuaren bitartez aparkalekuak egiteko asmoa daukatela aditzera eman du. Gai honen inguruan daukagun lehenengo berria da hau. Ez bait a inungo batzordeetan honi buruz ezer esan. Azaldu dezatela zertan datzan autofinantziazioaren historia hau.

Aurrekontuei buruz; Alkateak aurretik aditzera ematen du zailtasunak egongo direla. Gure postura gai honetan argia da. Udal hauteskundeetara programa batekin aurkeztu ginen eta bertan zehazturiko proiektuak defendatuko ditugu, jakin baitakigu zeintzuk diren soraluzetarren kezka, nahia eta beharrak. Beraz aurrekontuaren zirriborroa daukagunean, emendakina planteiatuko ditugu Gobernu Taldearekin negoziazio fase bati hasiera emateko.

Amaitzeko elkarrizketatik gehien harritu gaituena zentsura mozioaren gaia izan da. Benetan ez dakigu nundik atera duten EAJk PSE-EE eta PPren babesarekin zentsura mozio bat planteiatuko duela. Guk gai honen inguruan ez dugu ezer aditzera eman. Gure asmoa hori izango balitz, iadanik zentsura mozioa planteiatuko genuke eta ez ilegalizazioaren ondoren. Alkateak adierazpen hauekin zer saldu nahi du?

SORALUZETAKO EAJ/PNV UDAL TALDEA


Protestaren amaierarako segurtasunerako ei direnak agertu ziren. Emaizta: lagun bat bizkarra berotuta eta beste sei istiluak eragiteaz salatuta.

Guri ez digu inork esango gure herriko kaleetan zer ESAN dezakegun eta zer ez. Are gutxiago armen indarrez edo beraien babesean “bizikidetza” arauak beraien gustora inposatu nahi dizkigutenek.

Martitzena 12, 10etan Eibarko epaitegian 7 soraluzetarri epaiketa.

OIER ZUBIZARRETA ETA BESTE 6 HERRITARREN IZENEAN

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Pil-Pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Frontoia kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** pilpilean@euskalnet.net **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzordea:** Enara Agirre, Jon Basauri, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 1.920 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

bittartetik



Benan Oregi
Hau dok hau!

25 urterekin karrera amaituta, master bat eginda, hizkuntzak ikasita, aurkitzen duzu zure burua...Hainbeste urte eta gero: “Akabo azterketak! Utikan!”

Lanean hasi orduko konturatzaren zara, ordea, etengabeko formakuntza ezinbestekoa dela lanean behar bezala jarduteko. Makinatxo bat master, gradu-ondoko, ikastaro, mintegi, praktika eta jardunaldi egitea egokitu zaigu, eta zerbait ikasten dugunerako, atera da beste berri bat atzean utziko gaituena. Horrelakorik!

Txarrena da lanetik etxera, batzutan nekatuta eta beste batzuetan “jota”, heltzen garenean, gure seme-alaben etxeko-lanen ordua izaten dela; kalkuloko ariketak zuzendu, euskara edo linguako zerbait esplikatu... (guri laguntzen ziguten etxean?)

Gaueko hamaiketarako haurrak oheratuta eta norbera “pott” eginda dagoela, telebista aurrean eseri eta “orain, orain da nire tartea” esaten diozu zure buruari, goxo-goxo egoteko esperantzaz. Bikotekideari zerbait esaten hasi (eguneko konturen bat aipatzeko zain egon zara) eta konturatzaren zara lo seko dagoela. Biharko utzi behar!

Hau dok hau, kalamidadia!



Revelphone

MozoRock musika lehiaketa irabazi dute

MozoRock lehiaketia irabazi dozue. Espero zenduten?

Ez, baina ondo preparatuta jua ginan, eta zeozen esperantzatan bagenden. Ez da lehenengo aldixa herrixan jo dogula, bost bat bidar jo dogu herrixan, jua zan aratustietan adibidez.

Ze musika estilo joten dozue?

Rocka joten dogu, baina nahaste pixkat badauka, gauza asko gustatzen jakuz eta.

Gure talde erreferentia asko dira, baina batzuk esateko: Muse, Velvet Revolver, Berri Txarrak, UEK, Sexty sexers, Red Hot Chilli Pepers...

Zeinek egitten dittu kantuak?

Musikia Joanesek egitten dau eta hitzak Iosuk, bestiok lagunduta. Egunan gora-beheran idazten dittut letrak, mai-tasunaz, kritikiaz... Barruan daukaguna etaratzeko idazten doguz.

8 kantu daukaguz eginda, baina gehixagon proiektuak be badaukaguz martxan.

Hurrengo kontzertua noiz?

Bergaran daukagu, Pol-pol tabernan baina oindio ez dakigu noiz.

Nun nahiko zendukie jotia?

Nahi nahi... BEC-ian! (barrreak) Antzokixetan, edo herrietako jaixetan jende asko



Taldekideak: **Juan Fernandez** (bateria), **Iosu Arriola** (bajoa eta ahotsa), **Asier Iraeta** (gitarra), **Joanes Iñurrieta** (gitarra) eta **Gaizka Azkarate** (gitarra).

egoten da eta. Txarrena da batetik bestera ibiltzeko oin zaila daukagula, gidatzeko karnetik ez daukagulako, baina gero ibiliko gara.

Lehiaketetan parte hartzia be pentzauta daukagu, baina oindio ez daukagu tresnarik horretarako, eta erdizpurdiz eindako gauzarik ez dogu bialdu nahi.

Jarraitzailliak badaukazue?

Lagunak eta familia gehixen bat. Askolaguntzen doskue etxeak, gu bestela ezingara eta inora jua. Lokala be Juanen aittana da. Gustatzen jakue jotzen doguna. Ez dia kejatzen behintzat!

Sariko dirua zetan erabiliko dozue?

Oin gutxi bafliak erosi genduzen eta horrerik potentzia emoteko tresna bat erosi dogu. Irabazi dogun dirua talderako gauzak erosteko erabiltzen dogu. ☺

“Barruan daukaguna etaratzeko idazten doguz kantuak”



Belarrak

Loradenda eta belardenda

San Balentin egunerako eskaerak egiteko deitu:

Telf. 943 75 30 11

HNOS. BENITO ANAIAK



Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. y F. 943 75 20 43
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Abian da Debabarranenean taxientzako telefono bakarra: 943 40 05 00

Martxan jarri da Gipuzkoa osorako taxientzako telefono bakarra, soraluzetarrek ere erabili ahal izango dutena. **943 40 0500** zenbakia izango da. Zerbitzua etengabe, egunean 24 orduz eta urtean 365 egunez, egongo da martxan. Norbere udalerriko taxi geltokiko zenbakiak mantendu egingo dira herritarren zerbitzura.

Zerbitzu automatikoa

Soraluzeko taxia erabilgarri dagoen begiratuko du

lehenengo (bezerorik gabe edo zerbitzua bukatzean dutenak hartuko dira kontuan), eta bat bera ere ez badago erabiltzeko moduan, inguruko udalerrietan begiratuko du. Taxiak eskutako tokira iristeko zenbat denbora behar duen jakinaraziko dio bezeroari eta zerbitzua jaso nahi duen berresteko eskatuko dio.

Informazio zehatzagoa

902 07 6543 telefonoan jaso daiteke. ☎



San Blasak, nahi beste

15 opileko muga ipini bazen ere, gehiagok parte hartu nahi izan zuten I. San Blas Lehiaketan. Irabazlea Teresa Arizaga izan zen epaimahaiaren ustez. Bigarren lekuan Maria Angeles Zabala geratu zen, eta hirugarrenean Mertxe Arenaza. Ondoren, inguratutako guztien artean jan zituzten opilak.



Biztanleak galdu ditu Soraluzek 2001 eta 2006 artean

EUSTATEk argitaratutako datuen arabera, Gipuzkoan biztanleriak gora egin badu ere, Debabarranenean eta Soraluzen biztanleriak beherakada izan du 2001 eta 2006 urteen artean. Bailarak $-%0,7$ galdu du; askoz gehiago Soraluzek, $-%4,4$. Industriarekin lotutako herri askotan nabaritu dela gutxitzea adierazi du EUSTATEk. Galera izan dutenen artean, Arrasate ($-%5,7$) eta Eibar ($-%3,6$) daude.

Platanondoak inausi dituzte



Plaza Zaharreko zuhaitzak inausi eta garbitu egin dituzte pasa den aste honetan. Makai kooperatiba etxea arduratu da lan hori burutzeaz, 1.897,76 euroren truke.

Lurraldebusek %40ko beherapena egingo du lehenengo bidaitik hasita

Otsailaren lehen indarrean jarri zen Gipuzkoako Lurraldebuseko txartel bakarraren beherapena berria. PESA garraio zerbitzua Lurraldebuseen sartzearen ondorioa da hau. Lehenengo bidaitik berrogeigarrenera %40ko beherapena izango du bidaiaren prezioak, eta 41etik 70 bidaira bitartean, %70ekoa.

Alkatea senaturako zerrendetan dago

Espainiako hauteskunde orokorretarako hautagai zerrendak aurkeztu ditu Gipuzkoako EAE-ANVk eta Senaturako zerrendan zortzigarren lekua du Jose Luis Arizaga "Txipi" Soraluzeko alkateak.



Arratoien eta intsektuen aurkako programa

Herrian urtero egiten diren arratoien aurkako programa eta ikaste-txeetan intsektuen aurkakoa abian jarri ditu Udalak. ISS Higiene Ambiental 3D, S.A. etxea izango da lanaren arduraduna. 1.844,89 euro kostatuko da.



Herriko denda eta tabernetan euskaraz jarduteko ekimenak bultzatzen dihardu Udala



Herriko establezimendu komertzialetan euskara gehiago erabil dadin, idatziz nahi ahoz, Euskara Merkataritzara programa jarri zuen abian Udalak duela zenbait urte. Aurten, ahozko jardunari arreta berezia eman nahi diola adierazi du Udalak eta bezeroak euskaraz hartzeko moduan dauden establezimenduak identifikatu ondoren, "Nahi badozu gurean euskaraz" izeneko txarteltxoak eman die, mostradore gainean jar dezaten. Txartelaren bitartez, herritarrak gonbite horri erantzunez beren eguneroko erosketetan euskara gehiagotan eta gehiago erabil dezaten bultzatu nahi da.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren barruan

Euskara Merkataritzara egitasmoa Udalak berak duela zazpi urtetik aurrera daraman Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) txertatuta dago eta merkataritzaren arloan euskarazko jarduna handitzea dauka helburu. Urtean zehar birritan egiten du bisita Udalak herriko denda eta tabernetara eta laguntza eskaintzen die dendariei behar dituzten txartelak itzultzeko, errotulo berriak jartzeko edota euskarazko ikastaroetara joateko.



ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDETEGIA



Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Balategieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Kontulan
Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1. ezk.
Tlfnoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Juan Mari
Arraindegia

Eguneroko
arraina
eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



ARATUSTEAK 2008 ARGAZKITAN



BIDEOKAK ETA ARGAZKI GUZTIAK
IKUSTEKO: PLAENTXIA.COM



ZER TRISTEN DOTSAZU?

Dirua zertan gastatzeko biharra dago herrixan?

2008 urte honetarako batzorde bakoitzak jasoko duen diru kopurua zehazteko aurrekontuak prestatzen dihardute Udalean.

IDOIA CACHO
Irakaslia



GREGORIO URIBE
Tabernarixa



ANGELITA LARRAÑAGA
Etxekoandria



ALBERTO BENGOA
Administrarixa



Asfaltuan ez beste edozertan! Gazte-txuendako ekintzak falta dira. Arratsalde guztia baloiakin edo pin-ponian... oso murriztua geratzen da berendako. Antzerkixak, paia-suak... Hemen dana bariantetik eta autopistatik pasatzen da.

Herrixan girua sortzen gastatu biharko li-tzake. Eta beste proposamen bat be badaukat: munduko lehenengo eskopetia Soraluzen egin zan, Eibarren baino lehenago. Zegaitik ez da museo bat edo zeeze egitten?

Premiazkua eta lehenengoeginbihardana, Estaziñora igotzeko astensora. Medikuanera juateko, derrigor igo bihar dogu eta premiñia daukagu. Bidia itxi aurretik egin bihar zan gainera.

Kirol eta kultura ar-luan gehixago gastatu biharko litzake. Futbol zelaixa, eskeintza kulturala... Kiroldegixa be, dana bota eta barrixa egittia merkiagua urtengo zan oin daguana konpontzen ibiltzia baino.

KOMIKIXA



Karta enkarguz, jaunartzeak eta bataioak

EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Javier Alonso Zelaieta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K. Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

Ventos de Saudade Elgetan

Martxoaren 1ean, zapatuan, fado emanaldia eskainiko du Ventos de Saudade taldeak Elgetako Espaloia Kafe Antzokian. Kontzertua gaueko 22:30ean hasiko da. Sarrerak aldez aurretik erreserbatzeko:

943 78 90 85

edo espaloia@espaloia.com



Baba lehiaketa Itxaropenan

Datorren hilaren 15ean Baba lehiaketa egingo dute Jubilatuen Etxean. Parte hartzaileen artean, 8 bikoteko muga ipini zuten eta dagoeneko eman dute izena guztiek. Goizeko 10:30etan hasiko da lehiaketa gastronomikoa, 13:00etan epaimahaiak bere lanari ekingo dio eta 13:30ean dastaketa egiteko aukera izango dute gerturatutako guztiek. Arratsaldeko 4etan bingoa egongo da.



Sagardotegira irteera antolatu du Pil-pileanek

Otsailaren 23an, zapatua, izango da Rezola sagardotegira (Astigarraga) irteera eta eguadiako 12:30ean hartuko dute autobusa Estazio kaleko geltokian. Sagardotegiko menua jango dute bertaratutakoek, trikitilariak alaitutako giroan.

Txartelek 30 euro balioko dute bazkideentzat eta 35 euro bazkide ez direnentzat, bazkaria eta autobusa barne. Ohiko lekuetan izango dira salgai: Iratxo goxo-

dendan eta Gila, Arrano eta Gaztelupe tabernetan.

10 urtez

1999an egin zen Euskara Elkartetik sagardotegira lehenengo irteera. Hasieran afaria egiten zen; gaur egun, bazkaltzera joaten dira. 10 urte eta gero, ohiturak jarraitu egiten du eta aurten Rezola sagardotegira joango dira izena ematen duten guztiak. ☺

2007ko irteerara joan zirenak sagardotegiaren atarian



Debagoieneko musika eskolak gurean

Bergara, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Soraluzeko musikariak entzutera etorritakoek Kiroldegiko frontoia bete zuten. Hezkuntza bereziko ikasleen saioak eta bandaren emanaldiak jaso zituzten txalo zaparrada handienak.

GILA TABERNA
Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik
Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

KM Desing
Diseinua eta Sormena
Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Isidora Maiztegi

80. HAMARKADAKO ARATUSTIAK

20 urte inguru izango ditu argazkixak. Plaza Zaharrian dago neska gazte kuadrillia, painueluak, pelukak eta txapelak buruan ipinita, erropa zaharrak jantzita eta muñekaren batzuk zestuetan hartuta.

Goiko ilaran ezkerretik eskumara:

Ione Alberdi, Jolende Herrero, Esti Arluziaga, Ione Txurruka eta Lara Gauba.

Beheko ilaran ezkerretik eskumara:

Nerea Oregi, Maite Argarate, Ainhoa Velazquez eta Leire Makinai. 🌱



JOSE ECHEVERRIA ARIZAGA

2008KO URTARRILAREN 15EAN HIL ZEN,
81 URTE ZITUELA.
GOIAN BEGO

Haren emazte, seme-alaba eta gainerako senideek asko eskertzen di-
zute samin-agurra bidali zenutenei
eta baita bere hiletara etorri zineten
guztioi ere.



BENAN RODRIGUEZ

VIII. URTEURRENA
2000KO OTSAILAREN 28AN HIL ZEN
GOIAN BEGO

Atzo nire konpainian,
Gaur nire oroimenean,
Betirako nire bihotzean!